

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

ARAMAIOKO UDALA

Ondasun higiezinaren gaineko zergaren erroldak aztergai. 2026ko ekitaldia

Ondasun higiezinaren gaineko zerga arautzen duen Foru Arauak 21.2 artikuluan ezartzen duenari jarraituz, argitara ematen dira 2026ko urteari dagozkion, ezaugarri bereziko, hiri-lur eta landa-lurren ondasun higiezinaren gaineko zergen erroldak.

Iragarki hau ALHAOn argitaratzen den hurrengo egunetik kontatzen hasi eta hamabost eguneko epean, jendaurrean izango da zergadunek azter dezaten eta hala badagokio, egokitzen jotzen dituzten erreklamazioak udal bulegoetan aurkez ditzaten.

Aramaion, 2026ko uztailaren 1ean

Alkatea

ASIER AGIRRE MUGARTZA